

## 2017ko AZAROAREN 7ko UDAL OSOKO EZ OHIKO BILKURA

Elduainen, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deira, 2017ko azaroaren 7an, arratsaldeko zazpi t'erdietan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ez ohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Jose Angel Urkizu Odriozola Alkatearen lehendakaritzapean.

Zinegotziak:

- Maite Bizkarrondo Arzallus
- Miren Amaia Askasibar Agirre

Ez da/dira batzarreratu

Juan Ramon Gurrutxaga Lasa  
Goreti Soroa Martinez

Bertan aurkitzen da bilera honetarako 2017/1141 Foru Arauaren bitartez Elduaingo Udalaren idazkaria izateko gaitu den Iñaki Sainz Paredes eta zinpean ekitaldiaren berri jasotzen du.

Hain zuzen aipatu Foru Arauak ebazten du: Iñaki Sainz Paredesi ematea Elduaingo Osoko Bilkurak 2017ko azaroaren 7an egin beharreko bileran idazkari lanak egiteko mandatua.

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, lehendakariak, 19:30 ordu direnean, bilkura irekitzat eman eta gairerrendako puntuen azterketari ekiten zaio.

### **GAIEN ZERRENDA:**

ALDERDI ERABAKITZAILEA:

- [1.- 2018. urtean eragina izan dezaten ordenantza fiskalen aldaketa egiteko proposamena.](#)
- [2.- Katalunia errepublika onartzeko mozioaren onarpen proposamena.](#)

### **LEHENGO PUNTUA:**

**2018. URTEAN ERAGINA IZAN DEZATEN ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA.**

Ogasuneko arduradunek Udal zerga sistema osatzen duten figura desberdinak aztertu dituzte eta, ikusirik ordenantzen testua, zerbitzu batzuk duten kostea eta hauek,

beren aldetik, Tasak edo Prezio Publikoak eragiten dituztela, Ordenantza Fiskalen eta hauek daramatzaten Eranskinen aldaketa eta doiketa, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, proposatu diote Udal Batzarrari.

Banan bana udalaren eskumeneko eta menpeko zerga eta tasen azterketa egin da.

Azterketa honen ondorioz, zerga eta tasa batzuen kuotan aldaketa egitea proposatzen da. Kontutan harturik zerbitzu hauek suposatzen dituzten gastu zuzenak eta horiengatik udalaren sarrerak.

Orokorrean, udal zerga sistema KPIk izandako aldaketara doitzea proposatu da, beraz, % 1,8a igotzea proposatu da (KPIren aldaketa 2016ko irailetik 2017ko irailera INEk eskainitako datuaren arabera) eta aldaketaren ondorioz ateratzen diren kopuruak borobilduta.

Proposatutako aldaketek honako ordenantzatan dute eragina:

- 1.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarena.
- 2.- Jarduera ekonomikoen gaineko zergarena.
- 3.- Hirilurraren Balioaren Gehikuntzaren Gaineko Zergarena.
- 4.- Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergarena.
- 5.- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergarena.
- 6.- Zerbitzu publikoak eskaini eta iharduerak burutzeagatik tasarena.
- 7.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu berezia-gatik ordaindu beharreko tasarena.

Eta espedientea ikusita, Alkateak bozketa egitea agindu du honako emaitzarekin:

Alde bozkatu dute bertan dauden guztiek.

Emaitzaren arabera, ahobatez ERABAKI DA:

**LEHENA:** Jarraian zerrendatzen diren Ordenantza Fiskalak aldatu, berridatzi edo onartu, aurreko testuak ordeztuz edo berriak sortuz, azaldutako proposamenarekin bat etorriz.

- 1.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Ordenantza fiskala.

- 2.- Jarduera Ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen Ordenantza fiskala.
- 3.- Hirilurraren Balioaren Gehikuntzaren Gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala.
- 4.- Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen Ordenantza fiskala.
- 5.- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen Ordenantza fiskala
- 6.- Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen Ordenantza fiskala.
- 7.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu berezia-gatik ordaindu beharreko tasaren Ordenantza fiskala.

**BIGARRENA:** Aurreko hauek guztiek 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera indarra izango dute.

**HIRUGARRENA:** Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren bosteko 11/89 Foru Arauaren 16.1 artikulua agintzen duena betetzeko, hartutako erabakiaren berri ematen da: Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez eta udaletxeko ohoan plazaratzen den iragarki bidez, honela bada espedientea jendaurreko erakustaldian jartzen da, jarraiko arauari jarraiki:

Dokumentuak ikusgai daude: Udal honetako Idazkaritza-Kontuhartzailtzan.

Aztertze eta kasua balitz, erreklamazioak egiteko epea: 30 lanegun, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo lanegunetik kontatzen hasitakoa, bulego ordutegian.

Erreklamazioa egiteko gaitasuna dute: Uztailaren bosteko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikulua aipatzen dituenak.

Aurkezteko tokia: udalaren sarrera erregistroan.

Nori zuzendu erreklamazioa: Udal Batzarra.

**LAUGARRENA:** Erakustaldiaren epea inolako erreklamazio edo oharpenik aurkeztu gabe igaroko balitz, hartutako erabakiak behin-betirako onartutzat hartuko dira. Erreklamaziorik aurkeztu gero, Udalbatzarrak ebatziko ditu.

**BOSTGARRENA:** Gainontzeko Ordenantza Fiskaleko testu arautzaileak, idatzita dauden bezala mantenduko dira.



## **BIGARREN PUNTUA:**

### **KATALUNIA ERREPUBLIKA ONARTZEKO MOZIOAREN ONARPEN PROPOSAMENA**

Alkateak Udalbitza Partzuergoak emandako idatziaren berri eman eta irakurri egin du, segidan idatziaren testu osoa jasotzen da:

#### **“Elduaingo Udalaren Adierazpen Instituzionala Kataluniako independentzia adierazpena dela eta**

Caries Puidgdemont presidentak Kataluniako independentziaren adierazpena egin eta gero, erabaki historiko horrek Kataluniarentzat duen garrantziagatik eta baita Euskal Herriarentzat ere duen esanahiagatik, UDAL HONEK honakoa adierazten du:

- 1.- Aitortza erakutsi nahi dio Kataluniako errepublikari.
- 2.- Exijitzen du Kataluniako herritarren borondatea errespetatzea, zeina behin eta berriro hautestontzietan, modu demokratikoan, adierazi den.
- 3.- Zorionak ematen dizkie Kataluniako herritarrei, gizarte eragileei, erakundeei, alderdi politikoei eta errealitate hori posible egiten duen orori.
- 4.- Zorionak ematen dizkie bereziki, azken urteotan lan eta lan aritu diren udal hautetsi guztiei, erakutsi duten kemen eta konpromisoagatik. Eredu dira guretzat.
- 5.- Aldarrikatu nahi du Estaturik gabeko nazio guztiek euren etorkizuna erabakitzeko duten eskubidea.
- 6.- Onartzen du Adierazpen hau Kataluniako Generalitat-era, Kataluniako Parlament-era eta Kataluniako Independentziaren aldeko Erakundera (AMI) igortzera.

Elduaingo Udalari ez dagokionez Estatu berrien aitortza egitea ez eta nazioarteko hartu emanak egitea, hau da udalaren eskumen zuzeneko gaiekin zerikusirik ez duenez adierazpenak, Udalbatzarraren erabakiak inongo eragin juridikorik ez dituela izango ohartarazi du Idazkariak eta adierazpen politiko hutsa bezala jo behar dela, inolaz ere mozioa.

Eta besterik gabe bozketa egin da eta bertaratutako zinegotzien ahobatez, ERABAKI DA:

**LEHENA:** Aurkeztutako idatzia aurkeztu izan den moduan onartzea.

**BIGARRENA:** Aurrekoaren ondorioz, honako erabakiak onartzea.

- 1.- Udal honek aitortza erakutsi nahi dio Kataluniako errepublikari.
- 2.- Udal honek exijitzen du Kataluniako herritarren borondatea errespetatzea, zeina behin eta berriro hautestontzietan, modu demokratikoan, adierazi den.
- 3.- Udal honek zorionak ematen dizkie Kataluniako herritarrei, gizarte eragileei, erakundeei, alderdi politikoei eta errealitate hori posible egiten duen orori.
- 4.- Udal honek zorionak ematen dizkie bereziki, azken urteotan lan eta lan aritu diren udal hautetsi guztiei, erakutsi duten kemen eta konpromisoagatik.

Eredu dira guretzat.

5.- Udal honek aldarrikatu nahi du Estaturik gabeko nazio guztiek euren etorkizuna erabakitzeko duten eskubidea.

6.- Udal honek onartzen du adierazpen hau Kataluniako Generalitat-era, Kataluniako Parlament-era eta Kataluniako Independentziaren aldeko Erakundera (AMI) igortzera.

Eta, 19.36 ordu direnean, lehendakariak batzarra amaitutzat jotzen du, eta gertatuakoaren berri agerian gera dadin, Alkatearen oniritzia jasota, akta hau prestatu eta sinatzen dut.

Elduain, 2017ko azaroaren 7an.

O.e.  
Alkateak

Gaitutako Idazkariak



Jose Angel Urkizu Odriozola